

SODENAK NAIDER HOMOLOGATU DU NAFARROARENTZAT BALIO ESTRATEGIKO HANDIKO EKIMENETAN LAGUNTZA EMATEKO

Posted on 23/01/2026 by Naider

Category: [Albistea](#)

Tags: [Garapen ekonomikoa eta enpresariala](#), [Gobernantza eta lurralde estrategia](#), [Nafarroa](#)

SODENAK, Nafarroako Gobernuaren garapen ekonomiko eta enpresariala sustatzean espezializatutako sozietate publikoak, NAIDER homologatu du lurraldearentzat balio estrategiko handiko ekimenetan laguntza emateko, aholkularitza estrategikoko, analisi sozioekonomikoko eta proiektu publikoetarako laguntza teknikoko zerbitzuen bidez.

SODENA (Nafarroako Garapen Sozietatea) Nafarroako Gobernuaren finantza- eta enpresa-sustapenerako tresna da, eta eginkizun giltzarria du lehiakortasuna, berrikuntza, trantsizio jasagarria eta proiektu traktoreen erakartzea babesteko. Erosketa Sistema Dinamiko baten (SDA) bidez, SODENAK lurralde-analisan, politika publikoetan eta garapen jasagarrian sendotasun egiaztatua duten erakundeak hautatzen ditu, bai administrazioari bai Nafarroako ehun ekonomikoari politika eta proiektu estrategikoen definizioan eta inplementazioan laguntzeko.

